2016ko Jarduera Plana

Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

2016ko_ Jarduera Plana

1_Aurkezpena _3
2_Eragiketa estatistikoak _4
3_Azterlan kualitatiboak _5
4_Komunikazioa eta gogoetarako guneak _7

1_Aurkezpena

2016rako programa, berrikuntza aipagarriak dakartzana, aurkeztu du Kulturaren Euskal Behatokiak. Serie estatistikoei jarraitutasuna emateko ezinbestean egin behar den lan erregularra egiteaz gain, kanporako irekiera sendotu nahi du Behatokiak, hartara kultura alorreko informazioa eta jakintza sortzen duten erakundeen artean duen aintzatespena finkatzeko. Horixe du datorren urteko jarduera-programak bereizgarri nagusia.

Hiru ikerketa-lerrok elikatzen dute azterlanen eta ikerketen katalogoa: Behatokiaren beraren estatistikek, alde batetik (lan kuantitatibo gehienak baldintzatzen baitituzte eta dagoeneko sendotua den lan erregularrari eusten baitiote), azterlan kualitatiboek, bestetik, eta, azkenik, komunikazio- eta gogoeta-elementuek (proposatzen diren azterlanetatik abiatuta eskain litezkeen produktu berrien ingurukoek zein Behatokiak egiten duen lana alderatzeko eta hari buruzko gogoeta egiteko espazioen ingurukoek).

2016. urterako asmoa erreferentzialtasun handiagoa lortzea da. Horretarako, lankidetza berrietara, gogoeta-esparru berrietara eta aztertzeko gai berrietara ireki beharra dago. Ildo horretan, Behatokiaren eredu eta estatistika-esparruaren inguruan egindako barne-gogoetaren eta hainbat bidetatik jasotako eskarien ondorioz, lan-programa bat landu da, gaiei dagokienez askotarikoa eta sektorearekiko eta beste agente batzuekiko konplizitateen bilaketari dagokionez suspergarria. Ondoren, programa horren eduki nagusiak aurkeztuko ditugu.

2_Eragiketa estatistikoak

Estatistika-ikuspegitik, eragiketa erregularrek ezartzen duten egutegiaren araberakoa da lana, eta 2016. urtean, zehazki, finantzaketa eta gastu publikoaren 2014ko estatistika zabalduko da eta arte eta kultura-industrien arloko 2015eko landa-lana egingo da. Esparru horretan, hurrenez hurren 2008ko eta 2007ko serieak izateak duen balioaz gain, bi alderdi azpimarratuko dira: alde batetik, komunikazioa indartuko da, eta horretarako emaitzen interpretazioa erraztuko duten zabalkunde-produktuak landuko dira (sintetikoagoak, neurrira landuak); bestetik, kanpoko adituei artikuluak enkargatzea aurreikusi da. Bi bide horien helburua datuak irakurtzera bultzatzea (kontuan hartu behar da zeregin hori gogaikarria izan daitekeela estatistika-datuekin ohituta ez dagoen jendearentzat) eta datu horien interpretazioa erraztea da.

Bestalde, 2015ean abian jarritako bi panelak ere ezagutzera eman nahi ditu Behatokiak. Enpresa Konfiantza Adierazleen panelaren kasuan, 2016an beste bi bolada izango dira eta sektoreen egoeran eta aukeretan sakonduko duten azterketak agindu ahal izango dira. Ohituren panelari dagokionez, erronka bikoitza da: erronka metodologikoa (bere izaera esperimentalagatik) eta komunikazio-erronka (laguntzeko prest dauden 204 panelista finkoko lagina izateak duen balioagatik).

Kulturaren alorreko enpresen eta enpleguen analisia da Behatokiaren beste azterlan estatistikoetako bat. Iturri sekundarioek (hala nola Eustatek eta Lanbidek) eskaintzen duten informaziotik abiatuta, sektoreko enpresen eta lanpostuen bilakaeraren ikuspegi orokorra egingo da.

Nolanahi ere, abian dagoen estatistika ez ezik, euskarazko kulturari buruzko azterlan bat ere egitea dago aurreikusita. Azterlan horretan, eskuragarri dauden informazio-iturrien deskribapena eta estatistika egonkorra sortzearen bideragarritasuna jasoko da.

Halaber azpimarratu behar da sektoreei eskaintzen zaien gidaritza eta aholkularitza. Testuinguru horretan ari gara, hain zuzen, gauzatzen Trikitixa Elkarteak eta Musika Industriaren Elkartea aurrera daramatzaten ikerketekiko lankidetza, zein bere sektoreko errolda eguneratuak sortzeko pentsatuak.

Azkenik, estatistikaren esparruan, Lehendakaritza Sailarekin lankidetzan jardungo da, 2016ko udazkenean egingo den Soziometroan kulturari buruzko galderak txertatzeko. Aukera interesgarria da herritarrek ikertu nahi diren gaiei buruz duten iritzia ezagutzeko (euskarazko kultura, kulturaren, emakumeen eta abarren inguruko pertzepzioak eta abar).

3_Azterlan kualitatiboak

Azterlan kualitatiboen ikuspegitik, programak kontuan hartzen ditu, alde batetik, Behatokiari hainbat bidetatik egiten zaizkion proposamenak, eta, bestetik, azterlan kualitatiboek kulturaren eremuan (Behatokiaren testuinguruan kokatuta eta horretara egokituta) duten zentzuaren eta haien lehentasunen inguruko gogoeta orokorra.

Ikasketa-programa itxuratzeko egin beharreko gogoeta orokorraren aurretik, ikuspegi sektoriala hartu behar da kontuan. Ildo horretan, bertsolaritzari buruzko miaketa-azterlan bat egitea planteatu da. Behatokiak ez du orain arte eremu hori espezifikoki landu, eta oraingoan Bertzozale Elkartearekin lankidetzan lantzea bideragarria den aztertuko da.

Esparru zeharkakoago batean, kultura-politiken esparruan kezka eta interesa sortzen duten gaien inguruko gogoetak hiru ardatz ditu:



_Balio-katea:

Behatokiak sorkuntzan eta kontsumoan oinarritu ditu bere azterketak orain arte, baina, zalantzarik gabe, lehentasunezko arretagune dira eztabaidetan oraindik ere. Horrela, beraz, arreta bi funtzio horietan jarrita eta Behatokira iritsi diren proposamenak kontuan hartuta, sorkuntzarako gune publiko eta pribatuen EAEko mapa bat lantzea proposatu da, eta EAEn publikoak garatu diren kasuak aztertuko dira.

_Sektorearen joerak:

Ardatz honetan, kulturaren eremuko eztabaidagai eta gogoetagai nagusiak ditugu. Orain arte, finantzaketa, kudeaketa, kultura-diplomazia eta nazioartekotzea aztertu ditu Behatokiak. Zalantzarik gabe, kulturan oraindik ere eraginik handiena duten elementuetako bat ingurune digitala da. Kontsumoak, zabalkundeak, eskubideek, komunikazioak, produktuek, sorkuntzak eta abarrek eremu guztiak hartzen dituzte eraginpean. Hori dela-eta, gai horri buruzko azterlan bat egin behar da. Ardatz honetan, halaber, kulturaren egoerari buruzko 2015 Txostena dugu, eta adierazi beharra dago 2016. urtean zabalduko dela. Azkenik, Behatokiaren nazioarteko harremanetan lan egiteko bideari ekin beharko zaio berriz, programa kontrastatzeko eta antzeko erakundeak egiten ari diren ikerketak ezagutzeko.

_Joera sozioekonomikoak:

Kultura testuinguru sozioekonomiko orokor baten parte da, eta ezin da testuinguru horretatik isolatu. Sektorea eraginpean hartzen eta baldintzatzen duten gaiak dira, eta Behatokiak arreta handia eskaintzen die. Adibidez, laguntza publikoen gizarte-itzulkina ikertu da orain arte. Gai sozialetan sakontzeko, emakumeak kulturan duen egoera, desberdintasunari lotutako alderdiak (hala nola pobrezia edo immigrazioa) eta haiek kulturan duten eragina aztertu behar dira. Ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, kulturaren eraginari buruzko azterlanen eta kulturaren eta jasangarritasunaren arteko lotura estuaren inguruko gogoeta planteatu behar da.

4_Komunikazioa eta gogoetarako guneak

Argitalpenei dagokienez, gaur egun lantzen diren txosten luzeen formatu finkatuez gain, txosten guztien egikaritze-laburpenak eta estatistiken laburpen-buletin bat landuko dira.

Gogoetaren kasuan, lan egiteko bi bide proposatzen dira: adituei eskatutako **artikuluak** (Gastua eta Enpresa Konfiantza Adierazleak) eta Behatokiak lantzen dituen gaiak zabaltzeko eta horien inguruan eztabaidatzeko **gogoeta-foroak**. Egindako azterlanei buruz eztabaidatzeko edo egiten ari diren azterlanak bultzatzeko balio dezakete. Aurreikusitakoaren arabera, bi foro antolatuko dira: emakumeak kulturan duen tokiaren inguruko mahai-inguru bat, eta jardunaldi batzuk, ikerketan diharduten beste behatoki eta erakunde batzuekin.

2016ko Jarduera Plana

Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura